

## Lan deialdia:

### Agenda 2030 teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

#### ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua Bilbon, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- Jardunaldi osoko lanaldia.
- Urtean 27.126€-ko (soldata gordina).
- Urte baterako kontratua (luzatzeko aukera egon daiteke).
- EGKren barne hitzarmenak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.
- Lantalde gazte eta dinamiko batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren parte-hartzearen alde lan egitea.

#### LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan arloari dagozkion proiektuak eta ekimenak diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatzea.
- Elkarre, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin harreman zuzena mantentzea.
- Agenda 2030 eta garapen jasangarrirako helburuekin lotutako proiektu eta prozesuak garatzea.
- Agenda 2030 gazteen artean ezagutzera ematea eta hauekin lantzea.
- Erakunde Publikoekin bitartekaritza eta elkarlana burutzea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, eta beste edozein).
- Gizarte eragileekin elkarlana bultzatu eta garatzea.
- Elkarrekin eta gazteekin garatzen dituzten proiektuak/ekimenak ezagutzea eta haietan parte-hartzea.
- Dagokionean lan-arloko gaiei buruzko adierazpenak eta analisi publikoak egitea.
- Elkarrekin harreman zuzena izatea.

#### ESKATZEN DA:

- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Agenda 2030 eta Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruko formakuntza izatea.

- Gazteen, eta oro har, gizartearen errealitatearen ezagutza izatea.
- Parte-hartze prozesu, egitasmo eta esperientzia ezberdinak ezagutu eta beraietan parte hartu izana.
- Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko maila altua (EGA, HABE 3...).
- Gizarte arloko goi ikasketak izatea, edo, beste esparruetako ikasketak izanda ere, gizarte gaietan espezializatu izana
- Lantaldeak eta eztabaida taldeak dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- Malgutasuna: ordutegi eta mugikortasun geografikoa.
- Urtarrilean lanean hasteko berehalako prestutasuna izatea.

#### BALORATUKO DA:

- Lantaldean aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta ardurak hartzeko gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak autonomiaz garatzeko gaitasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatikaren ezaguerak.
- Elkarte ezberdinetan parte hartze aktiboa (kirol munduan, begirale munduan ...)
- Jendaurrean hitz egiteko gaitasuna.

#### HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO:

- Epea: abenduaren 19a arte.
- Sartu eta bete Datu babesaren politika (derrigorrezkoa).
- Curriculum eta motibazio gutuna bidali [egk@egk.eus](mailto:egk@egk.eus) helbidera. Gaiari "Agenda2030 TEKNIKARIA" idatzi.
- Curriculum dokumentua honela izendatu: IzenAbizenak.CV\_Agenda2030.pdf/doc.
- Motibazio Gutuna honela izendatu: IzenAbizenak.KARTA\_Agenda2030.pdf/doc.

---

## Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

Motibazio gutuna eta curriculumen bidalketa, abenduaren 19a arte.

Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, abenduaren 21an.

Froga Idatzia Bilbon goizean, abenduaren 22an

Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, abenduaren 28an.

Elkarrizketa eguna, urtarrilaren 3an online.

Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, urtarrilaren 5ean.

Lanean hasteko data, urtarrilaren 10ean.